



## MUTT ERABILTZEKO GIDALIBURU LABURRA

Egilea: ^pi^ ([pi@beobide.net](mailto:pi@beobide.net))

GPG gako publikoa : <http://www.rediris.net/pgp> ==> Piarres

Dokumentu hau GPL lizentziapean dago. Nahi haina kopia eta aldaketak egin ditzakezu, hori bai jatorria aipatzea eskertzen da. Zuzenketa, iradokizunak etab. bidaltzeko goiko helbidera bidali.

LDP-eu : <http://www.librezale.org/>

### Atalak

1. Gidaliburu honi buruz.
2. Hasi baino lehen.
3. Konfigurazioa.
4. Mutt abiarazten
5. Mezuak irakurtzeko
6. Mezuak idazteko
7. Ondo, orain euskaraz nahi dut
8. Helbide bilduma

## **1. Gidaliburu honi buruz:**

Gidaliburu honek ez du mutt-ek berarekin ekartzen duen manualak bezain beste zehazten aplikazio honen aukerak. Mutt erabiltzen hasteko lehen pausoak argitu besterik ez dut lortu nahi izan.

## **2. Hasi baino lehen:**

Argi eduki behar den gauza bat mutt-ek non bilatuko dituen postakutxak eta konfigurazio fitxategia da. Hau mutt zein konfigurazio fitxategirekin erabiltzen den arabera alda liteke, uneko ezarpenak ikusteko mutt -v komandoa erabili.

Gehienetan konfigurazio fitxategia /etc/Muttrc da eta erabiltzaile bakoitzak bere fitxategi pertsonalizatua izan dezake \$HOME/.muttrc fitxategian.

Postakutxan kokalekuarekin berdin gertatzen da, normalean konfigurazio fitxategian ezarriko da baina \$MAIL sistema aldagaia erabiliaz alda daiteke.

### 3. Konfigurazioa:

.muttrc fitxategiaren adibide bat ipiniko dut argibideekin:

```
set folder=~/.Mail # Dena non gordeko duen.
#set spoolfile=~/.Mail/inbox' # Posta berria non bilatu.# Procmail erabiltzen baduz''' #
# kendu eta zure mbox fitxategira zuzendu.
set mbox=+read # Zein fitxategietan gorde irakurritako mezuak
set record=+sent_mail # Bidalitako mezuak non gorde.
set move=yes # Mezuak erabiltzaileari galdetu gabe mugitu.
set copy=yes # Bidalitako mezuak kopiatu.
source ~/.mail_aliases # Mail aliasak erabili.
set abort_nosubject=ask-yes # Mezua hutsik badago bidalketa uzteaz galdetu.
unset autoedit # zuzenean editorera ez joateko.
set auto_tag # Markaturiko mezuei ezarri komandoa.
set nobeep # Erroreetan soinurik ez egin.
set charset="iso-8859-1" # iso-8859-1 karaktere bilduma erabili.
set locale="eu_ES" # Euskarazko lokalak ezarri
set allow_8bit # Ñ-ak eta ikusi ahal izateko.
set editor="/usr/bin/vim +8" # Vim erabili 8 lerroez hasirik.
set edit_headers # Goiburuak aldatzen utzi..
set hdrs
set fast_reply # Ez burukuoei begiratu (From erabili)
unset force_name
set forward_format="Er: %s" # Erantzunaren formatua
set forward_quote # Erantzunean gakodun jatorrizko testua gehitu
set realname="librezale" # From-erako izena
set hostname="zerbitzaria.com" # @<hostname> From-erako
set include # Gakotutako testua gehitu.
set indent_string="> " # Gakotzean erabiltzeko katea.
unset metoo # Niri ez erantzun.
unset mime_forward_decode
set postpone=ask-yes #Mezu beranduagoko utzi nahi dudan galdetu.
set print=ask-no # Mezua imprimatu nahi dudan galdetu.
set delete=yes # Galdetu gabe mezuak ezabatu (kontuz).
set print_command=/bin/false # Ez baduzu imprimitu nahi.
set noprompt_after
set quit=ask-yes # Irteera berresteko eskatu.
set recall=no
unset save_name
set shell="/bin/sh" # Erabili nahi dugun Shell-a.
set sig_dashes # Sinaduraren aurrean "--" jarri (besteek sinadura dela
#jakiteko).
set signature=~/.signature" # Sinadura fitxategia.
set sort=threads # Lehenetsitako ordenazio modua.
set sort_aux=last-date # Bigarrenengo ordenazio modua.
#set sort_browser=reverse-date # Fitxategiak ordenatzako modua.
set tmpdir=/home/yo/Mail/tmp # Karpeta tenporala (/tmp ere izan daiteke)
set nowait_key
#folder-hook . "push <esc>V" # Harien tolestura automatikoa.
mailboxes `echo $HOME/Mail/*`
hdr_order date from reply-to subject to cc
```

```

auto_view application/x-gunzip
#set pager_index_lines=10          # Erakuslearen kongiruzioa.
set pager_stop                     # Mezu batetik bestera ez pasatzeko
bind pager <up> previous-line
bind pager <down> next-line
bind pager p previous-undeleted
bind pager n next-undeleted

color hdrdefault red default       # Kolore ezarpenak (horrela mutt slrn-ren antzeko dago)
color quoted cyan default
color signature red default
color indicator brightyellow red
color error brightred default
color status yellow blue
color tree white default
color tilde magenta default
color message brightcyan default
color markers brightcyan default
color attachment white default
color search yellow blue
color header brightred default ^(From|Subject):
color body magenta default "(ftp|http)://[^\ ]+"
color body magenta default [-a-z_0-9.]+@[-a-z_0-9.]+
color underline brightgreen default

unset use_from
unmy_hdr From:
my_hdr From: Zure izena <zure@ePosta.helbidea>
set quote_regexp="^ *[a-zA-Z]*[>:#{]}"
set reply_regexp="^(re|aw):[ \t]*"
set date_format="%a, %d de %b de %Y, a las %I:%M:%S%p %Z"      #data formatua
set attribution=" %n -(e)k esan zuen : "                       # erantzunetan gehitzeko

```

#### 4. Mutt abiarazten:

Mutt komandoa abiaraztean bi gauza egin nahi ditugu normalean mezuak irakurri edo mezuak bidali . Mezuak irakurtzeko aski da mutt erabiltzearekin (nahiz aldagai gehiago erabil daitezke) eta konfigurazioaren arabera mezu zerrenda irekiko digu. Mezu bat idazteko mutt [mezua bidali nahi duzunaren helbidea] erabiliaz zuk konfiguratzean lehenetsitako editorea irekiko da mezua idazteko (horrela irekiaz ez du postakutxa irekitzen beraz nahiko azkarragoa da)


Abiaraztean erabili daitezkeen aldagaiak:

-A <alias>	emandako aliasa ireki
-a <fitxategia>	mezuari <file>fitxategia gehitu
-b <helbidea>	Mezuaren kopia (BCC) bidali nahi dituzun helbideak ezarri
-c <helbidea>	Mezuaren kopia (CC) bidali nahi dituzun helbideak ezarri
-e <komandoa>	Abiaraztean exekutatu behar den komandoa
-f <fitxategia>	Ireki behar duen postakutxa ezarri
-F < fitxategia>	muttrc fitxategi desberdin bat ezarri
-H < fitxategia>	mezu buruak hartu behar diren txantilloia ezarri
-i < fitxategia>	erantzunean gehitu nahi duzun fitxategia ezarri
-m <mota>	lehenetsitako postakutxa mota ezarri
-n	Mutt-ek sistemaren Muttrc fitxategia irakurri ez dezan
-p	Atzeratuak utziko mezuak berreskuratu
-Q <aldagaia>	konfigurazio aldagai bat galdetu
-R	Postakutxa idatzi ezin moduan ireki
-s <gaia>	Gaia ezarri (gako artean egon behar da hutsuneak baditu)
-v	Bertsio zenbakia eta konpilazio-data definizioak
-x	mailx bidalketa modua simulatu
-y	Zure 'postakuxak' zerrendatik postakutxa bat aukeratu
-z	Irten postakuxan ez badago mezurik
-Z	mezu berriak dituen karpeta lehenik ireki, atera ez balego mezu berririk
-h	laguntza mezu hau

## 5. Mezuak irakurtzeko:

### Sarrera:

Gure konfigurazioen arabera (gehienetan) mutt abiaraztean sarrera postakutxan ditugun mezuen zerrenda bat erakutsiko digu.



```
xterm
q:Irten d: Ezab u: Desezabatu s: Gorde m: Posta r: Erantzun g: Taldea ?: Laguntza
1 0 abu 18 noticias@hispa ( 104) una-al-dia (16/09/2003) Vulnerabilidades en PostFix 1.1.*
2 0 abu 18 Darwin Betancou ( 150) Re: Tarjeta de sonido Via technologies VT8233 AC97 no funciona en Debian woody
3 0 abu 18 Xavier Andrade ( 32) Re: kernel, Kernel patch y otros bichos
4 0s abu 18 Fernin Manzaned ( 77) modificar "runlevel" para levantar PCMCIA+networking
5 0 abu 18 jalonson ( 56) Re: Consultas basicas
6 0 F abu 18 To Mozilla@libr ( 38) Re: [Mozilla] 1.5b (kate batzu)
7 0 abu 18 kurtsik ( 49) Re: [Mozilla] 1.5b (kate batzu)
8 0 abu 18 kurtsik ( 37) Re: [Mozilla] 1.5b (kate batzu)
9 0 abu 18 kurtsik ( 103)
10 0 abu 18 jalonson ( 123) Re: Problemas tras la compilación del núcleo
11 0 abu 18 Nacho Garcia ( 86) Re: Problemas tras la compilación del núcleo
12 0 abu 18 thinway ( 116)
13 0 F abu 18 To mozilla@libr ( 36) [Mozilla] error_log LDAP_eu-n
14 0 abu 18 kurtsik ( 63)
15 0 abu 18 Ricardo ( 24) dhclient no arranca en el inicio
16 0 abu 18 root ( 141) pi 2003/08/18 20:02 Security Violations
17 0 abu 18 Ricardo ( 19) como puedo volver a la versión stable con apt
18 0 abu 18 jalonson ( 33)
19 0 F abu 18 To mozilla ( 52) [Mozilla] 1.5b Itzultze dauden kateak
20 0 abu 18 kurtsik ( 32)
21 0 abu 18 kurtsik ( 71)
22 0 abu 18 Ibon Igartua ( 71)
23 0 abu 18 Ibon Igartua ( 42)
24 0 abu 18 kurtsik ( 35)
25 0 abu 18 tresseth ( 13) COMPILACION?LIBRERIAGLIBC2.2.4?
26 0 abu 18 David Garcia Pe ( 43) El cdrecord ralentiza totalmente mi pc.
27 0 abu 18 root ( 10) pi 2003/08/18 21:02 System Events
28 0s abu 18 Rodolfo Gonzále ( 81) Re: Enrutador o firewall
29 0 abu 18 Rudy Godoy ( 21) Re: Detección USB, FireWire
30 0 F abu 18 To mozilla ( 22) [Mozilla] Mozilla 1.5b
31 0 abu 18 Ibon Igartua ( 27)
32 0 F abu 18 To Mozilla@libr ( 34)
33 0 abu 18 Ibon Igartua ( 28)
34 0 F abu 18 To Mozilla@libr ( 38)
35 0 abu 18 kurtsik ( 48) [Mozilla] GPGr: buruzko eskuliburua LDAPen
36 0 F abu 18 To Mozilla@libr ( 37)
37 0 abu 18 kurtsik ( 61)
38 0 F abu 18 To Mozilla@libr ( 39)
39 0 abu 18 Carlos Fuster ( 25) modem externo USB conception
---Mutt: /var/mail/pi [Msgs:39 Old:39 Post:2 Inc:2 159K]---(threads/last-date)---
Lehenengo mezuan zaude.
```

Hemen kolumna ezberdinak ikus ditzakegu :

- Lehengoan mezu zenbakia agertzen da.
- Bigarren goan mezuaren egoera erakusten duten bandera talde bat dago. Bandera garrantzitsuenak honako hauek dira:
  - N -> ePosta berria
  - ! -> Markaturiko mezua
  - D -> Ezabatzeko markatuta dagoen mezua.
  - S -> digitalki sinatutako mezua.
  - P -> Zifratuta dagoen mezua.
  - F -> Mezuari erantzun diogu
- Hirugarren mezuaren jasotze data erakusten du
- Hurrengoak mezuaren igorlea adierazten du
- Azkenik mezuaren gaia

### Zerrenda nagusiko teklak:

Hemendik aurrera mezuen artean mugitu gaitzke **kurtsorearen teklak** (edo **j** eta **k**) erabiliaz, tekla hauek mutt-eko menu guztietan erabiliko ditugu.

Hurrengo irakurri gabeko mezura joateko **TAB** tekla erabiliko dugu.

Azken mezura joateko \* erabiliko dugu.

Lehenengora joateko =

Zerrenda orrialde bat aurrera joateko **leku-barra** erabiliko dugu.

Zerrenda orrialde bat atzera joateko — erabiliko dugu

Mezu bat ikusteko **intro** erabiliko dugu, kontutan izan N banderadun mezu bat ikusterakoan bandera ezabatu egingo zaiola

Mezu bat ezabatzeko markatu nahi badugu **d** erabiliko dugu

Mezu bat erantzuteko, mezura joan eta **r** erabiliko dugu, segida editore bezala aukeratutako aplikazioa irekiko da bertan mezuko testua gakoturik.

Mezu bat idazteko **c** erabiliko dugu.

Mezua errebotatu nahi badugu (aldaketarik gabe bidali) **b** erabiliko dugu

Mezua aldaketak egin ez birbidali nahi badugu **f** erabiliko dugu.

Kontutan izan postakutxan ez dela aldaketarik egingo mutt itxi, postakutxaz aldatu edo \$ bidez gorde artean.

Mezu ikustatzailea:

Mezu ikustatzailearen mezuen itxura hau da:

Mezu bat erakusterakoan, ikustatzaileak erakutsiko digun lehenengoa mezua da, segidan gaia (subject), mezua jatorria (From:) eta kopiak bidali zaizkion helbideak (cc) dira.

Mezua testu laukoa bada, berau erakutsiko digu hurrena, mezua lerroka ikusten joateko “intro” edo kurtsore teklak erabiliko ditugu eta mezua orrialdeka ikusi nahi badugu “leku-barra” (edo avpag) eta – (edo repag) erabiliko ditugu. Mezuaren hasierara joateko “^” erabili. Mezuaren gorputzean testu kate bat bilatu nahi badugu “/” erabili eta atzeraka bilatzeko “ESC-/”. Aukeratutako testu katea beste kolore batez agertuko da (hau ezabatzeko “\” erabili).

Gehienetan mezu ikustatzaileak mezua testuaren atzetik (egongo balira) ePostak gehigarri dituen fitxategien izenak erakusten ditu. Ikusi nahi bagenitu “v” erabiliko dugu. Gehigarria “d” erabiliaz ezaba dezakegu edo “p” erabiliaz inprimatu. Menu honetatik (eta gehienetatik) irteteko “q” erabili.

## 6. Mezua idazterakoan:

Mezu bat idazterakoan, bai mezu bat erantzutean edo berri bat idazterakoan, mutt-ek .muttrc fitxategian ezarritako editorea irekitzen du. Mezua berria denean editoreak mezuaren txantilloi bat irekiko du ePostaren buruko aukera batzuekin. “From” ,“To:” ,”Subject:”,”Cc:” edo “Reply-to” bete ditzazkezu.

Behin mezua idatzirik eta editorea ixtean, konposizio leihora pasako gara. Honen itxura hau da:

```
y:Bidali q:Ezertatu t:To c:CC s:Subj a:Fitxategia gehitu d:Deskrib ?i:Laguntza
From:
To: mozilla <mozilla@librezale.org>
Cc:
Bcc:
Subject: kuku
Reply-To:
Fcc: =sent_mail
Mix: <no chain defined>
Security: Garbitu

-- Gehigarriak
- I 1 /tmp/mutt-pi-15845-0 [text/plain, 7bit, us-ascii, 0,1K]

-- Mutt: Compose [Approx. msg size: 0,1K Atts: 1]-----
```

Mezua bidaltzeko y erabili, honek mezu zerrendara edo mutt-etik kanpo eramango gaitu (nondik ireki dugun arabera).

“To:” aldatzeko “t” erabiliko dugu, bertan bidali nahi dugun helbidea idazteko edo “TAB” erabiliaz sortuak ditugun aliasen zerrenda erakutsiko digu.

Mezuari fitxategi bat gehitu nahi badiogu “a” erabiliko dugu eta gehitu nahi dugun fitxategiaren izena galdetuko digu, TAB edo ? erabiliaz karpeta kudeatzaile txiki bat agertuko zaigu bertan intro erabiliaz gehitu nahi dugun fitxategia aukeratzeko (bat baino gehiago denean lehenengo “t” erabiliaz markatu eta gero “intro” sakatuaz aukeratu).

Gehituriko fitxategi bati izena aldatu nahi badiogu “d” erabili eta eta ezabatzeko “D”.



## 7. Ondo, orain euskaraz nahi dut

Mutt-ek momentu honetan (2003ko abuztua) ez du euskaratze ofizialik, baina hori lortzeko lanean ari nauk. Ofizialtasuna lortu arte mutt-en euskaratze fitxategia (mutt.mo) <http://www.librezale.org/deskargak/danetik> atalean utzi dut inori interesatuko balitzaio.

Fitxategi hau mutt-en 1.5.4 bertsioarentzat egina dago (beste bertsioentzat ere balioko du baina ez dakit zenbateraino).

Egin behar den bakarra fitxategi hori deskargatu eta zure sistemak lokalak gordetzen dituen lekuan ipini (debian GNU/Linux-etan /usr/share/locale/eu/LC\_MESSAGES/ karpetan). Horrela eta sistema lokaletan eu\_\* aukeratu baduzu LC\_MESSAGES aldagaiarentzat funtzionatu beharko luke.

Duda edo zailtasunik aurkitzen baduzue idatzi [pi@beobie.net](mailto:pi@beobie.net) helbidera eta laguntzen saiatuko.

### Helbide Bilduma:

Mutt-i buruz:

Orrialde Nagusia: <http://www.mutt.org>

Beste hizkuntzetako orrialdeak: <http://www.mutt.org/links.html#intl>

Santiago Romero-n gidaliburua (gaztelaniaz) :<http://pinsa.escomposlinux.org/sromero/linux/mutt-tut.html>

Euskara eta Soft libreari buruz:

Librezale taldearen etxea: <http://www.librezale.org>

LDP-eu (Linux Documentation Project) : <http://www.librezale.org/ldp>

Euskal -GNU : <http://www.euskalgnu.org>

